

Nosoträsh



Pop-aren aldarrikapena

Donostiako La Buena Vida eta Le Mans taldeek beren lehen diskoetan jorratu zuten pop *naif*-ak jarraitzaile ugari sortu ditu azken urteotan, batez ere Espainian. Abesti arinak, xarmangarriak eta itsaskorrek egin zituzten bi taldeek lan haietan, baina gero, hari konponketek eta malenkoniak ukitu zituzten (bereziki Ibon Errazkinen taldea), eta azken diskoetan tristuraz eta nostalgiaz beteriko kantuak egin dituzte.


Baina, esan bezala, pop doinuek arrasto nabarmena hedatu zuten, eta asteburu honetan Bilbon eta Irunen joko duen Nosoträsh Xixongo taldea dugu horren adibide esanguratsuenetakoa. Neskaz osatutako

Xixongo taldeak Bilbon eta Irunen joko du

seikote honek orain dela hilabete batzuk kaleratu du bere lehen disko luzea —*Nadie hablará de... Nosoträsh*—, doinu hunkigarritz eta ederrez osaturiko lana. 1996an argitaratutako *Voy a aterrizar* single perfektua —*Rock de Lux* Bartzelonako aldizkari prestijiodunaren iritziz, urteko abesti onena— izan zen talde asturiarraren aurkezpena, eta harrezkero, poliki-poliki eta presa handirik gabe, *Nadie hablará de... Nosoträsh* hau iristeko gosea piztu duten abesti solteak joan dira argitaratzen Xixongoak.

Eta, azkenik, ailegatu da diskoa. Doinu *naif*-ek hor diraute (*Botiquín, Palida...*); baina Nosoträshen lan berriari heldutasuna dario beste edozeren gainetik. Manta Ray eta Diariu taldeetako Nacho Gonzalez Vegas eta Joaquín Torres ekoizlearen laguntzarekin, soinu zirrarakorra lortu dute asturiarrek, eta piano eta biolinaren erabilerak tankera beretsuko beste talde batzuetatik bereizten ditu. *Pereza* gogoangarria, *Sintasol*, *Mis muñecas*, *Punk Rock city*, *En ningún lugar / Nenyures* bikotea —bata gaztelaniaz eta bestea bablez— eta Serge Gainsbourg konpositore frantziar mitikoaren *Poupée de cire poupée de son* dira horren adibide garbienak. Asteburuan Euskal Herrian joko du Xixongo taldeak; Bilboko Bilborock aretoan ostiralean, eta Irungo Tunk!-en larunbatean. ■mikel lizarralde

Kiko Veneno



Ibilbideari errepassoa

Kiko Veneno, Sevillako kataluniarra, Euskal Herrian izango dugu asteburuan bere azken diskoa aurkezten. Diskoaren aurkezpena egiten, eta, bide batez, bere ibilbideari errepasso bat egiten; izan ere, Kikoren azken diskoak, *Puro Veneno*-k, abeslariaren garai guztietako kantuak biltzen ditu.

Arrakasta —arrakasta komertziala bederen— 1992an iritsi zitzaion Kikori, *Échate un cantecito* disko bikaina kaleratu zuenean. Oso harrera ona izan zuen lan hark, bai kritikarien bai entzuleen aldetik, eta dagoeneko *En un mercedes blanco*, *Joselito* eta *Lobo Lopez* jende askoren oroimen musikalean geratu diren kantuak dira.

Baina Kikoren historia askoz lehenagotik dator. 70eko hamarkadaren erdialdean Rafael eta Raimundo Amador anaiak ezagutu zituen, eta haiekin batera flamenkoaren, rockaren eta poparen arteko fusioa sortu zuen. Flamenkoaren maisuek adina Jimi Hendrixek eta Bob Dylanek izan zuten eragina Kikorengan, eta haren guztia- ren lehen emaitza 1977an iritsi zen. Punk-aren uda berean, hatxis pusketari handi bat azalean zeraman disko bat azaldu zen, *Veneno* izenburupean. Izugarritzko kritika onak jaso zituen, baina *Los delincuentes* eta *Muchachita* bezalako abestiek ez zuten jarraipenik izan. Veneno desegin egin zen, eta Kikok ordutik aurrera, ahal zuen tenorean egin behar izan zuen lan, oihartzunik gabe eta disko irregularrak egin eta egin —*Seré mecánico por ti*, *Pequeño Salvaje*, *El pueblo guapeao*—. *Échate un cantecito*-ren arrakastaren ondotik, *Está muy bien eso del cariño* eta *Punta Paloma* diskoak kaleratu ditu Kikok, eta azken aldia bere abesti bildumari errepassotxo bat egiteko aukera ikusi du. Asteburuan Donostia eta Iruñeko kontzertuetan bilduko diren ere izango dute parada Kikoren ibilbidea ezagutzeko. ■mikel lizarralde

New Yorkeko ska gaua

Ska mugimenduak Euskal Herrian betidanik izan ditu jarraitzaile sutsuak, eta gaur egun ere zenbait talde arrakastatsuk Kingstonen dute jarria begirada. Bada, gaur New Yorkeko ska mugimenduko hiru talde zuzenean ikusi eta entzuteko aukera izango dute skazaleek Bilboko Kafe Antzokian: Stubborm Allstars, Skinnerbox eta Rocker T.

Stubborm Allstars taldea 1994an sortu zuen King Django *frontman*-ak. Estudioko saio bakar baterako sortua. Stubborm Allstarsek diskoak grabatzeari eta zuzenean jotzeari ekin dio denborarekin; betiere Jamaikako ska eta 60ko hamarkadako reggae-a gogoratuz, hau da, hastapenak zeintzuk diren inoiz ahaztu gabe. Izan ere taldearen abesti gehienek klasikoek begiratzen diete.

Skinnerbox taldeak ere ska eta reggae erritmoak erabiltzen ditu, baina Stubborm Allstarsek ez bezala, punkak eta soulak ere badute tokia New Yorkeko talde horren soinuaren bitxia da, King Django bera delako talde horren burua ere. Skinnerbox taldea oso ezaguna egin da EEBBetako ska mugimenduaren barruan, baina erabiltzen dituen erreferentziak direla eta, beste musika mota batzuen jarraitzaileen artean ere oso harrera ona izan du. Gainera, taldearen zuzeneko emanaldiak indartsuak eta oso alaiak direla diote.

Amaitzeko, Rocker T hirukoteko proposamen modernoena da. New Yorkeko abeslariak, besteak beste, KRS-One eta Yellowman musikariek kolaboratu du, eta raggamuffin-hip-hop mugimenduko buruetako bat da. Bestalde, orain dela gutxi grabatu du bere lehendabiziko diskoa —*Nice by the hour*—.

Hirurak Bilboko Kafe Antzokian izango dira gaur. ■mikel lizarralde